

*Jolastu eta ikasi
Elkanorekin*

Filipinak



Jolastu eta ikasi Elkanorekin FILIPINAK

1521eko martxoaren 16an, europar bat ere inoiz heldu ez zen leku bat ikusi genuen. Filipinak ziren, Magallaesek “San Lazaro uharteak” izena eman zienak.



Uhartera heldutakoan, atseginez hartu gintuen Cebuko Humabon rajak, Magallaesi laguntza eskatu zionak Maktan irlako etsaiez eta haien buruzagi Lapulapuz libratzeko. Magallaesek haietaz libratuko zela agindu zion, eta, horrela, bertako borroketan sartu ginen.

1521eko apirilaren 27an, Magallaes, bere gizonetako batzuekin batera, Maktango hondartzara joan zen, Lapulapuren aurka borrokatzera. Indigenak askoz gehiago ziren gu baino, eta borroka gogor baten ondoren, ontzietara erretiratu behar izan genuen. Hondartza hartan, Magallaes hil egin zen, indigenen lantzen zaurien ondorioz.

Magallaes hil ondoren, Duarte Barbosak hartu zuen espedizioaren agintea. Ez luzarorako, baina, Cebun hil egin baitzuten, uharterko buruzagiak azpijokoan bankete batera eraman ondoren. Espedizioak Cebu uztea erabaki zuen, gelditzen ziren hiru ontzietako bat erreta, ez baitzegoen gizon nahikorik guztiak gobernatzeko. Concepción aukeratu zuten, okerren hura zegoelako.

Juan López de Carvalho, orduan, espedizioiko buru izendatu zuten, baina berehala kendu zuten kargutik, eta Gómez de Espinosa izendatu zuten Trinidadeko kapitain.. Ni, Juan Sebastian Elkano, Victoriako kapitain izendatu ninduten!.

Filipinak Magallaesen bidaiaren amaiera izan ziren, eta ezin izan zuen berak proposatutako balentria amaituta ikusi. Han geunden bitartean, beste irla gehiagotan gelditu ginen, adibidez, Homonhon eta Limasawa uharteetan. Beste norabait joateko unea zen, ordea, gure helmugara: Espezien Uharteetara.

